



# ekoizpenetik eraldatze gunera

Garikoitz Aiesta

**Z**aldibiako Goizane eraikinean, baserrietako ekoizpenak jaso eta makinekin produktuak transformatzeko, lehen eraldatze gune publikoa Gipuzkoan prest dago. Proiektu honen hazia bi mila hamar-kada bukaeran izan zuen eta sustatzaileak Goierri eskualdea osatzen duten eta Goimennen kide diren hogeita bi herriak dira.

Goimen, Goierriko Landa Garapen Agentziaren babespean eta diru publikoz hormitua, Zaldibin osatua dago Gipuzkoako lehen eraldatze gunea; hala ere, oraindik ezin da martxan jarri, koordinazio lanak burutzeko pertsona bat kontratatze fasea bertan behera geratu zelako eta kudeaketa planik egin ez delako.

Baserritar, nekazari eta ganaduzaleei, beraien nekazal produktuak eraldatzeko bidea eskain dakieke honelako gune hauetan, baserriaren bizimodu indartzeko eta bertan sortutako ustiapen eta elikagaiekin dibertsifikazioa bultzatzeko. Beren lehengaiak baserrietatik bertara eraman eta gunean iada erosita eta kokatuta dauden makina egokiek produktu kontsumigarriak eralda li-

tezke, kontsumitzaileei kalitatezko eta bertako produktu anitzak eskainiaz, eta dagoen bezala, indarrean dagoen osasun araudi zorrotza bermatuaz. Produktu hauen artean aipa daitezke: mermeladak, gaztak, ortu-ariak, esnekiak...

Elikadura subiranotasuna dela-eta, gaur egunera egokিতා dauden gune hauei esker, lehen sektorean lanean diharduten baserritar, nekazari eta abeltzainei ekoizpenari lotutako etorkizun oparo eta autonomoagoa ekar dakieke horrelako proiektu batek; kontutuan izanda, gainera, sektore honek bere horretan jarrai dezan egin behar izan dituen egokitzapen eta eguneratze lanak ekarri dituen onurak. Biztanleek gero eta gehiago eskatu eta kontsumitzen dituzten bertako produktuak, batez ere, kalitatea, freskotasuna eta onura bermatzen direlako.

Gipuzkoako produktuen heterogeneidadeari erantzuteko, lurretik eta itsasotik datozen produktu eraldatuak eskuratuko lirateke gune hauetan. Bilketa eta eraldaketa lan hauek modu egoki batean burutzeko geografikoki sakabanatutako gune desberdine-

tan egingo litzateke, kostaldea eta barnealdea hartzen dituen kokapen leketan; honela, ekoizle zein kontsumitzaileen beharrak erantzun eta asebeteteko lirateke erraztasunez.

Bestetik, proiektu honek badu, uztarpen global maila eskasa duen sektorea gorpuzteko eta indartzeko alderdi esanguratsu bat; izan ere, erreferentzizko gune honetan baserritarren arteko harremanetatik proiektu berriak sor daitezke, beharrezko diren garapena, berrikuntza eta ikerketa era eraginkorrean bultzatuz. Modu honetara, baserritarren ikasgune bilakaturako litzateke, non ekoizleek formazio eguneratua eta jarrera jasotzeko aukera izango luketen. Baserritar eta abeltzainen prestakuntzak ustiapenari, ekoizpenari, landa-bizitzari eta kontsumitzaileei ekarriko lizkiekeen onurak azpimarragarriak dira maila guztietan.

Landa Garapena Politika Publikoen oinarri da eta diru publikoaren erabilera egokia bideratzea du helburu, beraz, Zaldibikoa bezalako eraldatze gune hauek modu honetara kudeatuta, izan ere, baserritarren gehiengoak bere kabuz ezinezkoa izango luketenez,

baserritarrek erraztasunak eskuratu ahal izango litzateke, era kolektiboan lan eginaz eta denontzat onuragarriak diren emaitzak jasoz.

Gainera, proiektu pilotu izateak ere erakutsiko liguken beste edozein proiektuk bezalaxe, alderdirik sendoena martxan jarri eta gero, zertan hobetu beharko litzatekeen, zertan aldaketak eragin... Hau da, proiektua bera bizirik legokeen proiektu bat izanda, uneoro berriztatze, egokitze eta eguneratze mugimenduan egongo litzateke, hausnarketa eta egokitze horietatik aberatasunak aplikatuko bailirateke ezinbestean.

Amaitzeko, interes orokorra proiektuaren begitan dagoela kontutan izanda, nekazartzara bideratutako diru laguntza publikoaren kudeaketa garden eta eraginkorra bultzatuko litzateke. Lehenetasunak markatzeko garaian, eta kalitatea denon ahotan dabilkigun garai honetan, eraldatze gune publikoak bezalako erronkak, txikiak izanda ere, Gipuzkoa bezalako lurralde historiko batean dugun lehen sektore tipologian sinisten bada, denon artean eta denon ongizaterako, gauzatzeak dira.

## DE LA PRODUCCIÓN AL CENTRO DE TRANSFORMACIÓN

La primera transformadora pública de Gipuzkoa se encuentra ya preparada en el edificio Goizane de Zaldibia, para recogida de productos rurales desde los caseríos y para transformación de dicho producto con maquinaria específica. Este proyecto se inició a finales de la década del 2000 y los 22 pueblos que componen la comarca del Goierri y socios de Goimen componen el grupo de promotores.

Goimen, en Zaldibia, está constituida como la primera zona de transformación de Gipuzkoa, con la protección de la Agencia de Desarrollo Rural Goimen y la ayuda económica pública; sin embargo, todavía no ha sido posible su puesta en marcha ya que la fase de contratación para la realización de trabajos de coordinación se paralizó y tampoco se han realizado planes de ejecución necesarios para la puesta en marcha de este centro..

Este tipo de establecimientos ofrecen modernos procesos de transformación de los productos agrícolas a los baserritarras y ganaderos, y de este modo, refuerzan el modo de vida en los caseríos y la diversificación de los alimentos y productos. La materia prima de los caseríos se lleva a estos centros públicos y se transforman en producto elaborado consumible con maquinaria apropiada, comprada y colocada en dicho lugar, para así ofrecer al consumidor diferentes productos de calidad del lugar, cumpliendo la estricta normativa de salud vigente. Entre estos productos se pueden nombrar: mermeladas, quesos, vegetales, lácteos...

En el camino a la soberanía alimentaria, gracias a estos centros que están adaptadas a la realidad actual, un proyecto como éste puede generar un futuro más próspero y autónomo a los baserritarras, agricultores, pescadores y ganaderos que trabajan en la producción del primer sector; teniendo en cuenta, sobre todo que, para que este sector continúe en su labor de mejoras, son necesarias las adaptaciones y actualizaciones del mismo. Sobre todo, porque los productos autóctonos se requieren cada vez más por los consumidores, ya que garantizan calidad, frescura y salud.

Para responder a los productos heterogéneos de Gipuzkoa, en estos centros de transformación se recogerían productos transformados de tierra y de mar. Para que dicha recogida se haga de manera adecuada, se realizaría en distintos puntos geográficos, en lugares referenciales para su recogida; así, se respondería y cumpliría con las necesidades de los productores y también, de los consumidores.

Por otro lado, este proyecto es significativo en la manera de articular y reforzar a nivel global un sector como éste, de baja articulación; puesto que, en estos centros de referencia de las relaciones entre los productores se pueden crear nuevos proyectos para responder a la necesidad del desarrollo, actualización e investigación de manera efectiva. De este modo, sería lugar de aprendizaje para los baserritarras, donde podrían recibir formación actualizada y continua. La formación de los productores beneficiaría de manera óptima la explotación, la producción, la vida rural y a los propios consumidores.

El desarrollo rural es la base de la política agraria y su objetivo es realizarlo adecuadamente con el dinero público, ya que la mayoría de productores no podrían llevarlo a cabo por su cuenta; por ello, gestionando los centros de transformación como el de Zaldibia de esta manera, podrían desempeñarlo fácilmente trabajando de manera colectiva y obteniendo resultados favorables para todos.

Además, el hecho de que el proyecto sea piloto nos enseñaría, como cualquier otro proyecto de éstas características, después de poner en marcha los aspectos más importantes, en qué se debería mejorar, en qué realizar cambios... Es decir, dicho proyecto al ser un proyecto vivo, sería un proyecto en renovación, revisión y adaptación continua, y de esta manera, de esas continuas actualizaciones se podrían aplicar cuantas mejoras fuesen necesarias.

Para finalizar, y teniendo en cuenta que el interés general del proyecto radica en el mismo proyecto, se priorizaría la gestión transparente y efectiva de la subvención pública para la agricultura. A la hora de marcar prioridades, y en esta época donde la calidad está en boca de todos, los retos como estos centros públicas de transformación de productos agropecuarios y marinos, aún siendo de dimensiones reducidas, si se cree en la tipología del primer sector que tenemos en un territorio histórico como el de Gipuzkoa, son realizables y ejecutables, entre todos y para el bien de todos.